2020-I-31

ZUREKIN BURU-BELARRI KONTU KONTARI: BIZIKIDETZARAKO LIBURUTEGIAK

Maite Elorriaga (Boluntarioa)

Matiz-Balioen hezkuntza elkartearen eskutik urtarrileko azken bi asteetan, ostegun eta ostiraleetan, Getxoko Erromo eta Villamonte liburutegietan "Bere azalean jarri" proiektuan kokatutako topaleku interesgarri zein aberasgarriak izan ziren. Ipuinen bitartez aniztasuna lantzea zen helburua.

Argentina, Togo, Guatemala eta Kolonbiar jatorrizko pertsonak egon ziren, beren lurraldeetako ipuinak kontatzen; eta bai haurrek, bai helduok, gozatzeaz gain leku horiei buruz asko ikasi genuen.

Adibidez, urtarrilaren 31n, Bogotako Miguel Angelek bere herrian oso ezaguna den Alejo Durán (1919-1989) soinu jotzaile eta konpositoreari buruzko historia kontatu zigun. Nekazari eta nekazarien semea izan zen. Berak esaten zuenez: "Haizeak hitz egiten dit eta erronkak jartzen dizkit, gero eta kanta politagoak sor ditzadan". Horrela joaten ziren abestiak berarengana, ez ziren berriak, bazeuden "hor".

Soinua erosi zuen gero, gorria, 20 peso ordainduta. Lan handia egin behar izan zuen; baina hortik aurrera bere lagun bihurtu zen, berarekin joaten zen leku guztietara eta bere sekretuak kontatzen zizkion.

1968an "Festival de la Leyenda Vallenata" lehiaketara aurkeztu eta lehenengo Rey Vallenato bihurtu zen. Eta musika ikasi gabe!

Baina Alejo Durán musikariaren historiaz gain Kolonbiari buruz gauza asko ikasi genituen: non dagoen, zein den hiriburua eta leku garrantzitsuenak, bandera, bertakoa zela Fernando Botero margolaria, eta abar.

Eta amaierako tartea: musikaz lagunduta umeek laguntzaileekin batera soinu bat margotu eta koloretako zintekin hornitzeko aukera izan zuten.

Gero liburu bateko orrialdea markatzeko? Ikusiko da!

BERE AZALEAN JARRI! proiektuan kokatutako ekintza izan zen.

31-I-2020

CONTAMOS CONTIGO: BIBLIOTECAS PARA CONVIVIR

Maite Elorriaga (Voluntaria)

Matiz-Educación en valores *es la asociación organizadora de los encuentros* que tuvieron lugar en las bibliotecas de Romo y Villamonte (Getxo) los jueves y viernes de las dos últimas semanas de Enero, dentro del proyecto "Ponte en su piel", cuyo objetivo es la convivencia en la diversidad a través de los cuentos.

Estuvieron impartiendo los talleres personas de Argentina, Togo, Guatemala y Colombia, quienes contaron cuentos originarios de sus respectivos paises, y de esa manera, tanto niños como mayores, además de gozar de los cuentos, pudimos aprender mucho de esos paises,.

Por ejemplo, el 31 de Enero Miguel Angel que es de Bogotá, nos contó la historia de Alejo Durán (1919-1989) un acordeonista y compositor muy conocido en su tierra. Campesino e hijo de campesinos, como él decía : "Me habla el viento y me desafía para que cree cada vez mejores canciones". Es como llegaban las canciones donde él, no eran nuevas, él solo las cogía, ya estaban "ahí".

Mas tarde compró un acordeón rojo, por 20 pesos, para lo que tuvo que trabajar mucho. Pero de ahí en adelante se convirtió en su amigo, que le acompañaba a todas partes y a quien confiaba sus secretos.

En 1968 participó en el "Festival de la Leyenda Vallenata" quedando primero y convirtiéndose en el Rey Vallenato. Y todo sin estudiar música!

Pero además de la historia del músico Alejo Durán, aprendimos muchas cosas sobre Colombia: donde está, su capital, ciudades y lugares importantes, la bandera, que allí nació el pintor Fernando Botero, etc.

Y para terminar: los niños ayudados de sus acompañantes pudieron pintar y adornar con cintas de colores un acordeón, mientras sonaba música colombiana.

Sevirá el acordeón como marcapáginas? Puede ser!

PONTE EN SU PIEL! es el proyecto donde se enmarca la actividad.

Begira itzazu egun horretako ekintzaren inguruko argazkiak hurrengo estekan:// Consulta la galeria de imágenes de la actividad de ese día en el siguiente enlace :

http://www.amalgama.eus/es/frontend/evento/bibliotecas-para-convivir_594

Maite Elorriaga - REPORTERA DE AMALGAMA